


# LARRATXOKO JAIK



Argazki: Imanol Olegi

## «Poza ematen du auzokideak gustura ikusteak festetan»

Manolo Olabarrietak urteak daramatza Larratxoko jaiak antolatzen. Bera futbol txapelketaz arduratzen da batipat. Manolo aspaldi hasi zen lanean guraso elkartearen. Handik aurrera kirol ekintzez arduratu zen Larratxoko ikastetxean.

**Larraitz Garmendia** (lfnoa.: 943-391267)

### Zer dira zuretzat Larratxoko jaiak?

Zerbait handia da niretzat. Alde batetik, sufritu, sufritzen dugu egun horietan jaiak antolatzen gabiltzanok dena zaindu nahi baitugu ondo atera dadin. Baina bes-tetik poza ematen digu auzokideak hain ondo dabiltzala ikusteak eta une txar guztiak ahanztarazten dizkizu.

### Aurtengo egitarautik, zer azpimarratuko zenuke?


Aurten Inaki Perurena Inaxio semearekin dator. Erakargarria izango da ezbairik gabe gazte honen indarra eta trebezia ikustea.

Herri Kirolekin jarraituz, Kristina Saralegi eta Itziar Goenaga aizkolariak arituko dira. Ez da ohikoa emakumezkoak aizkoran ikustea eta jendeak gustura hartuko du jaialdia.

Bestalde, futbol txapelketa ere egingo da eta aurten 16 taldek parte hartuko dute helduen mailan eta 8 txikien mailan.

### Ba al dago berrikuntzarik?

Bai. Aurten lehen aldiz 150 gaztek osatutako zortzi koadrila aterako dira kalera. Ostiralean irtengo dira eta igandea bitartean ibiliko dira kalez kale. Azkenik koadrilen jaiarekin bukatzeko, «gurdi ehorztea» egingo da.



## TXALAKA ELKARTEA

ZURE HERRIKO JAIK  
GOZATZEKO!!!

GIRO ONA ETA JATORRA!!!




Larratxo kalea 20, behea. ALTZA. • Tfnoa.: (943) 392875

## ZIABOGA taberna

Sandwichak • Hamburgesak  
Eguneroko menua • Plater konbinatuak

Larratxo pasealekua 39 • Tfnoa.: (943) 398570



ALBAITARITZA KLINIKA

## ALTZA

LARRIALDIK (24 ordu)  
Tfnoa.: (943) 908-67435

Ordutegia. Astegunetan: 10.00-13.00 eta 16.30-20.00  
Larunbatetan: 10.00-13.00

Larratxo pasealekua 32, behea • Tfnoa.: (943) 396839

HARATEGIA

URDATEGIA

## IMANOL

Gure baserrietako haragia

Txirrita bertsolaria 14 • Tfnoa.: (943) 39 29 40 • DONOSTIA



HEZKUNTZA,  
UNIBERTSITATE ETA  
IKERKETA SAILA

Larratxo pasealekua 51-53 • Tfnoa.: (943) 393921



Zure oparia  
aukeratzeko  
irtenbidea

Larratxo pasealekua 22  
Tfnoa.: (943) 397197

taberna



Larratxo kalea 24, behea

## Egia

Aitziber Gurutzeaga |fnoa.: 943-431228|

### Gladysi omenaldia

Gladys Del Estal erahil zuteneko hemeretzigarren urteurrena izango da larunbat honetan, hilaren 6an, arratsaldeko 18.30etan. Eguzkik antolatu duen ekitaldiaren hasieran parkearen sarreran urtero bezala, «Cristina Enea» plakaren gainean «Gladys Enea» jarriko da. Ekitaldian 19 urtez preso egon den Mediusek parte hartuko du.

### Gazte Lokalaren ekintzak

Ekainaren 12an ikasturtea bukatu dela ospatzeko jaialdia egingo dute gazte lokalekoek. Hilaren 20ko Urumeako jaitzieran parte hartzeko hilaren 12rako izena eman behar da. Gogoratu azkenik, hilaren 23an Leitzarnera bizikletaz joateko irteera egingo dela eta 26an Txindokira igoko direla.

### Abenturaz Blai 98

Gazte Lokalekoek «Abenturaz Blai 98» antolatu dute, uztailaren 16tik 31era egingo dena. Bi ibilbide egingo dira: 12-14 urte bitartekoentzat Urkiola, Otxandio, Mariseka, Legutio, Elosu, Gopegi eta Izarra, eta 15-17 urte bitartekoentzat berriz, Gopegi,

### Txabola eguna

Antxeta, Anenea, Porrontxoenea, Gazte txabola, Chinasky eta Baztanenea txabolak eraiki ziren joan den larunbatean Plaza Haundin. Aukera egon zen babes ofizialeko etxebizitza hauetarako eskaera inprimakia betetzeko. Ordu batak aldeira zozketa egin zen, Gazte txabola (handiena)

Kutxako zuzendariari egokitu zitzaion eta txikiena berriz, familia ugari bati. Txabola egunarekin batera, Benta-Berriko babes ofialeko etxebizitzekin eraman den sistema salatu nahi izan da eta aldi berean, Atotxan egingo dituzten etxebizitza guztiak babes ofizialekoak eta kopuru handi bat alokairuzkoak izatea eskatu du Egiako Koordinakundeak. Eskaera horri 1.600 lagunek eman zioten babesa euren sinadurekin, eta Koordinakundeak alderdi guztiei biltzeko eskutitza bidali die. Beraien esanetan, «PP, IU-EB, HB eta alkatearekin bildu gara, baina EAJK eta EAK ez dute erantzun».

Elosu, Legutio, Mariseka, Otxandio eta Izarra. Hamasei egunetan Euskal Herriko zenbait txoko ezagutuko dituzte. Aukera desberdinak ere eskainiko ditu irteerak: abentura arloan eskalada, zaldi irteerak, piraguismoa, kobazuloak, urtegiak, mendiak... Irteeraren prezioa 20.000 pezetakoa

da eta diruz larri dabiltzarentzat laguntzak egongo dira. Izena emateko azken eguna ekainaren 12a da, Gazte Lokalean bertan 16.30etatik 20.00etara edo bestela (943) 322197 zenbakira deitu.


### Aitor ikastolan jaia

Aitor ikastolaren eguna

ospatuko da bihar 11.00etatik aurrera. Egun osoan umeeke egindako eskulanak, argazkiak, bideoak eta Hizkuntza tailerreko lanez gain egitarau mardula antolatu dute. Haur eta helduentzako jokuak, txapelketak, Trebeska dantza taldearen emanaldia, afari eta bazkari herrikoia...



**DON  
PLANCHON**



Arropa etxean jaso eta ordu gutxi barru garbia eta beti bezain ondo plantxatuta itzuliko dizugu oso prezio onean!

Tomas Gros 5

**Tfnoa.: (943) 28 93 93**

*Ugaldetxo*  
**JATETXEA**

Banketeak  
Agur-afariak  
Jaunartzeak

Goizueta bidea • (Hernanitik 9 kilometrotara), Ereñozu  
Tfnoa.: (943) 550240

**OSCAR CAMPS** doktorea

Medikuntza orokorra  
Akupuntura

Zabaleta 1, GROS. 2. solairua 6. bulegoa  
Tfnoa.: (943) 322041 6.059 kolegiatu zenbakio

Odontologia Klinika

**Dr. Beobide**

Ametzagaña 49  
Tfnoa.: (943) 276227

Medikua - Odontologoa

# LARRATXOKO JAIAK

## Osteguna, ekainak 11

- 17.30etan:** Iruki taldeak «Castaña Pilonga» ikuskizuna eskainiko du Casares kultur etxean.
- 18.30etan:** Alkatetza lortzeko «hauteskundeak» Josu Artetxe enparantzako eszenatokian.
- 19.00etan:** Zumoak eta opariak haurrentzat Mac Donalds etxeak emanda.
- 19.30etan:** Txupinazoa
- 21.00etan:** Lehen zezen suzkoa. Ondoren Ezdeus taldea.

## Ostirala, ekainak 12

- 11.00etan:** Toka, bote eta igela jokuak auzoko jubilatuentzat.
- 18.00etan:** Hortzmuga taldearen ikuskizuna kaleetan zehar.
- 19.00etan:** Patata arrautzopilen III. lehiaketa Josu Artetxe plazan.
- 19.30etan:** Haurrentzat txokolate jana eskolako jolastokian.
- 23.00etan:** Herri danborrada.
- 23.05etan:** Euskaraoke herrikoia eskolako jolaslekuan.



Arrasateko Ekon musika taldea Larratxon arituko da datorren hilaren 13an.

- 00.00etan:** Alaitz eta Maider eskolan. Donostia Orkestra Josu Artetxe plazan. Dantzalekua Txirritan.

## Larunbata, ekainak 13

- 11.00etan:** Hamaiketako aiton-amonentzat. Rokodromoa Josu Artetxe plazan. Haur tailerrak.
- 11.30etan:** Toka eta bote jolasak Txirrita pasealekuan.
- 12.30etan:** Borroka-arten IV. erakusketa. Haurrak.
- 13.30etan:** Contadores Antzerki-Tailerra. Kalean.
- 16.00etan:** Futbol Txapelketako finalak Josu Artetxe plazan. Haur Olinpiadak Txirritan.
- 16.30etan:** Mus eta Tute txapelketa Lanbroa eta Ziabogan.
- 17.30etan:** Larratxoko Lehen Sagardo Eguna Josu Artetxe plazan. Laura eta Maider trikitalariekin erromeria. Sanduzelako zanzantzarrak.
- 18.00etan:** Hodei orkestrarekin dantzaldia Gurea egoitzan.
- 20.30etan:** Ausartak taldearen azken antzezlanak Eskolan.
- 23.30etan:** Jaiko Barik, Ekon eta Demarras taldeekin jaialdia. Zamorano Caballerren su artifizialak.
- 00.00etan:** Karaokea. Dantzalekua Txirritan.
- 02.00etan:** Zezen suzkoa.

## Igandea, ekainak 14

- 09.00etan:** Donostia gaitajoleekin diana.
- 10.00etan:** Xakea Josu Artetxe plazan.
- 11.30etan:** Eskuzko pilota Txirritako pilotalekuan. Haurrak: Alberdi-Labaka/ Lujanbio-Abilleira. Afizionatuak: Karrete-Baez/ Dominguez-Unanue.
- 12.30etan:** Herri Kirolak eskolako jolaslekuan. Inaki Perurena eta Inaxio haren semea. Kristina Saralegi eta Itziar Goenaga aizkolariak.
- 14.30etan:** Zikiro jana plazan
- 18.00etan:** Larratxo Dantza Taldea, Josu Artetxe plazan.
- 20.30etan:** Montaña eta Ribera Jotariak.
- 22.00etan:** Amaiera. Azken traka. Musika Jatorrenarekin.

**ALTZA EUSKALTEGIA**

Zatoz guregana  
jaietan ere  
euskaraz egiteko

**ABEGI**

abegi.euskaltegiak@jalgi.com

40 03 16

IXIRRI BERTI SOLARIA, 23

**JULEN ULACIA**

- HARATEGIA  
- URDAITEGIA

EUSKAL LABELDUN OKELA

Larratxo pasealekua 25  
Tfnoa.: (943) 392689

**LANBROA**

taberna

Larratxo pasealekua 37

**MAHALA** baserriko  
esneki naturalak

**Mahala**

- BEHI GAZTA FRESKOA  
- YOGURRAK: NATURALAK • DESNATATUAK  
FRUITUDUNAK

Mahala baserria • IEABURU • Tfnoa.: (943) 673499


**LARRATXO OKINDEGIA S.A.**

Larratxo pasealekua 20, behea. ALTZA  
Tfnoa.: (943) 391178

**ALTZA OKINDEGIA S.A.**

Larratxo pasealekua 96, behea. ALTZA  
Tfnoa.: (943) 357284

# kizunari begira




## San Martin azokak 120 urte egin ditu egungo kokalekuan

dirua atera nahia zegoen proposamen horren atzean. Dena dela, badirudi Uriberri ideia hori burutik kentzea lortu dugula», dio Mikel Urrestarazuk.

### Supermerkatua eta jatetxeak

San Martingo erabiltzaileen proiektua erabat zehaztu gabe dagoen arren, lur



azpian hiru solairu egitea aurreikusten du, eta lur gainean beste bi. Lur azpian, aparkalekuak bi pisu hartuko lituzke eta hirugarrena karga eta deskarga egiteko erabiliko litzateke. Lur gaineko lehenengo solairuan supermerkatua eta zenbait saltoki jarriko lirateke eta bigarrenean, berriz, arraindegiak, taberna eta jatetxeak. Egitasmoa aurrera eramateko, San Martingo saltoki bakoitzak hamabi bat milioi pezeta jarri beharko lituzke.

### Traba ugari

Urrestarazuren esanetan, «Udalak oztopoak besterik ez digu jarri. Hasiéran trabak teknikoak zirela esan ziguten. Gure teknikariek egindako azterketak, ordea, agerian utzi zuen proiektua bideragarria zela. Maiatzaren 28an Uriberrekin bilera egin genuen eta oztopoa finantziarioa zela adierazi zuen orduan. Aitzakiak dira. Borondate falta izan da benetako arazoa».

Udal Gobernuaren osatzen duten PSE-EE, EA eta EAJ

alderdien arteko adostasun ezak zailago egin du konponbidea. Horregatik, hiru alderdiek bilera egingo dute datorren astelehenean, hilak 8, adostasuna bilatzeko. Ramon Uribe adierazi du bilera hori egin bitartean ez duela inolako adierazpenik egingo. IRUTXULO, saiatu arren, ez du zinegotziarekin mintzatzerik izan.

Merkatu Sailaren eta San Martingo erabiltzaileen arteko harremanak etenda daude

«Ez dugu San Bartolomera joan nahi»

Mikel Urrestarazu

gaur egun. «Gu, hala ere, baikorrak gara», dio Mikel Urrestarazuk, «Odon Elorzak zuzenean berarekin hitz egiteko esan digu. Udalak oso jarrera itxia izan du orain arte, baina gure iritzia entzun beharko du derrigorrez. Aukera asko daude: Udalak berritze lanak laguntzea, guk eraikina erostea eta berritzea gure kabuz egitea... Estatu mailako zenbait erakundetan ere diru laguntzak eska daitezke. Hori bai, argi dugu merkatuak oraingo lekuan jarraitu behar duela, bere betiko izaerarekin. Erdialdeak mota honetako merkatua behar du eta».

# GIPUZKOA

SUKALDEAK • GALERIAK



**TB • BIDEOA  
ELEKTRAGAILUAK**



**SUKALDE  
ALTZARIAK**

Gipuzkoa Plaza 4 • Tfnoa.: (943) 42 35 65